

UDAL KIROL KONTSEILUA: AKTA

Ohiko 1. UDAL KIROL KONTSEILUA..... zbkia: 01-12/13

Eguna: 2012. ko Azaroaren 13a.

Hasiera ordua: 19:30

Amaiera ordua: 21:00

Bertaratutakoak:

Oiartzun K.E. –

Txost –

Hurtzaro ikastola –

Elizalde Herri Eskola –

Euskal Makila taldea –

Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotzia-

Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako teknikaria- Jokin Sukuntza

Oiartzun Udaleko Udal Kirol Kontseiluko koordinatzailea- Jokin Agirre

Oiarpe K.E.

Okisa S.A.

Power Rangers Areto Futbol taldea

Hurtzaro Mendi Taldea

Honbu kenpo – kai taldea

DPO Baobab

Ez dira azaldu:

Oarsoaldea I.K.E.-

Oiartzungo S.S.K.T. –

Girizia Mendizale Taldea –

M^aAsun Arizkuren

Lartaun Zikloturistak Elkarte

Elizaldetarrak Judo Elkarte

Tximeleta K.E.

Hurtzaro Kirol Elkarte

Kizkitza Makazaga

Rexu Mazusta

GEZAK –

Girizia sokatira

Girizia eskalada

Girizia txirrindularitza

HELTA

Esait

Oiartzun Udaleko Alkatea

Gai zerrenda:

1. Udal aurrekontuen aurkezpena
2. KIROLAZ.COM datu basearen horniketa eta dokumentazio aurkezpena
3. Funtzionamendu gastuetarako diru laguntza irizpideen zehaztapena. Bereziki sustatutako modalitateen inguruko irizpidearen onarpena
4. Komunikazio bideak, deialdiak etabar egiterako orduan. KIROLAZ.COM
5. Eskaerak eta galderak

Lehenik eta behin **Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako teknikariak** ongietorria eman zien bertaratutakoei, eta gai zerrenda azaldu zuen

Ondoren **Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotziak** hasiera eman zion lehenengo puntuaren azalpenarekin.

1. Udal aurrekontuen aurkezpena

Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotziak azaldu zuen udal aurrekontuen estimazio bat, eta aipatu zuen herriko webgunean www.oiartzun.org zintzilikatuko dutela edonork ikusi nahi baditu, ez zuen datarik aurkeztu hau ikusi ahal izateko.

2. KIROLAZ.COM datu basearen horniketa eta dokumentazio aurkezpena

Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako teknikariak gogorarazi zuen KIROLAZ.COM datu basearen horniketa egiteko epea Azaroaren 30 dela, horniketa honetan, datuak sartzeaz gain, Jokin Agirrerri hauek kontrastatzeko fitxak edota triptikoak entregatzea ere sartzen dela (eskolakirola@gmail.com edota 943490142 telefonoan edozein zalantzatarako).

Honez gain azaldu zen ere Abenduak 14rako Aurrekontuak, entrenatzaileen gaitasunak eta Eusko Jaurlaritzan altan emandako zuzendaritza taldearen dokumentazioa ere entregatu behar direla dirulaguntzak eskatzeko.

3. Funtzionamendu gastuetarako diru laguntza irizpideen zehaztapena. Bereziki sustatutako modalitateen inguruko irizpidearen onarpena

Oiartzun Udaleko Udal Kirol Kontseiluko koordinatzaileak aurkeztu zuen **Udal Kirol Kontseiluko Lan Taldeak** egindako hausnarketa "bereziki sustatutako modalitateen" inguruan, aurkeztutakoa hurrengoia izan zen:

BEREZIKI SUSTATUTAKO JARDUERAK

BEREZIKI SUSTATUTAKO KIROL MODALITATEAK IZATEA PROPOSATZEN DA
BI LINEA BEREIZTU DITUT

| 1. LINEA | | 2. LINEA | | |
|--|----------------|--|--|-------------------------------------|
| KIROL BERRI EDO BEREZIKI POTENTZIATU BEHARREKOAK | NORI ZUZENDUA | HERRIAN "ARRAIGOA" DUTENAK BERAIEN EGOERAGATIK LAGUNTZA BEHAR DUTENAK. ONDARE KULTURAL BAT DUTENAK ETA LAGUNTZA BEREZIRIK EZEAN KIROL MINORITARIOAK IZANIK DESAGERPENERA JOKO LUKETENAK | | |
| UDAL KIROL KONTSEILUAK ERABAKIKO DU NOR SAR DAITEKEEN LINEA HONETAN | NORK | UDAL KIROL KONTSEILUAK ERABAKIKO DU NOR SAR DAITEKEEN LINEA HONETAN | AURREKO URTETAN ZEUDEN BERAK SARTZEA PROPOSATZEN DA | TXOST OJARPE EUSKAL MAKILA |
| KIROL MODALITATE BERRIETARAKO AURKEZTUTAKO PLANAREN ARABERAKO BULTZADA PROPOSATZEN DA | ZENBAT DENBORA | UDAL KIROL KONTSEILUAK ERABAKIKO DU BEREZIKI SUSTATZEN JARRAITU BEHAR DEN EDO EZ. BI URTEROKO ERREBISIOA EGINGO DA, ELKARTEEN FUNTZIONAMENDU MEMORIA AZTERTUKO DU TEKNIKARIAK ETA UDAL KIROL KONTSEILUAN AURKEZTUKO DA. | | |

Irizpide honen barruan dauden elkarteek Aurrekontuak entregatzean beren funtzionamendu plana ere entregatu beharko dute.

Aho batez onartu zen irizpide hau dirulaguntzetarako irizpideei batzea, eta beraz 2012-2012 denboraldirako dirulaguntza irizpide hauek onartu ziren:

| | 1 | 2 | 3 | 4 |
|-------------------|--|-------------------|---------------------------------------|--|
| Irizpidea | Kirolari kopurua | Generoa | Oiartzuarrak | 12-18 urte bitarteko kirolariak |
| Balorazioa | <i>Lizentzi edo izen emate kopurua</i> | <i>Kirolariak</i> | <i>Entrenatzaile eta zuzendaritza</i> | <i>Oiartzuar lizentzi edo izen emate kopurua</i> |

| | 6 | 5 | 7 | 9 | 8 |
|-------------------|-------------------------------------|---|--|--|--|
| Irizpidea | Entrenatzaileen gaitasunak** | Entrenatzaileen euskara titulazio maila* | Euskera (Talde/elkartean) | Bereziki sustatutako modalitateak | Kirolari ezinduek |
| Balorazioa | <i>Titulazioa</i> | <i>EGA</i> | <i>Ttur turren konbenioen bitartez</i> | <i>Txost, Oiarpe eta Euskal makila</i> | <i>Norbaitek izango balu, aurrekontu eta paperekin aurkeztu, kontutan hartzeko</i> |

4. Komunikazio bideak, deialdiak etabar egiterako orduan. KIROLAZ.COM

Aho batez erabaki zen hemendik aurrera Udal Kirol Kontseiluko komunikazio guztiak emailaz egitea posta arruntaren orde, jasotakoaren erantzuna eskatu zen. Erabiliko den helbide elektronikoa Kirolaz.com datu basean agertuko dena izango da. Datu baseko elkarten informazioa beteta eta eguneratua izatea eskatu zen.

5. Eskakerak eta galderak

Oiartzun K.E.k esaten du Ugaldetxo futbol zelaiko kaldera gelan gazteleraz dauden kartel batzuk daudela eta esan dietela euskaratu egin behar direla. Beraiek galdetzen dute nor egingo den kargu gastu horretaz.

Txost eta **Oiarpe K.E.**-k esaten dute irizpideak direnak direlakoak izanik ere beraiei ez zaiela dirua iristen.

Oiartzun Udaleko Gazteria eta Kiroletako zinegotziak aipatu zuen komunikazio alorretik eskatu ziotela ea elkarten helbide elektronikoak beraiei pasatzerik bazegoen Aski Prexko eta Gotti Betti komunikazioak elkarteei ere bideratzeko. Baiezkoa eman zen.

Honekin batera ere, eskatu zuen kirol berriak... komunikazio@oiartzun.org helbidera bidaltzeko

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman zen gaueko 21:00tan.

Oiartzunen, 2012ko azaroaren 13ean.